

Aita Arrupe Hiroshiman

Deia, 1983-08-10.

Hiroshimako bonba lehertu zenean, Aita Arrupe Hirsohimako hiritik sei kilometrotara bizi zen.

Japoniara 1938an heldu zen; lehenbizi, Yokohama-ra, gero Tokyo-ra; 1940ean, Yamaguchi-ko misiolari eta parroku izendatu zuten, eta bi urte gero, 1942ean, bidali zuten Hiroshima-n Josulagunek zuten nobiziagoaren erretore eta maixu bezala.

Amerikanoak bonba jausten utzi baino hiru urte lehen.

"Sutaldi hark zerua argitu zuenean, esaten zidan Erroman 1973an,¹ neure langelan nengoen beste josulagun bategaz, eta argi honen ondoren entzun genuen halako baurre luze izugarria... dardaratu zen etxea, erautsi ziren leihoak eta atea beira zarata handiaz, japoindarren lur-kanaberaz eginiko holzeria dena erori zen esku erraldoi batek etxea zapaldu balu bezala, eta geure buruak solairuan botatetik buruak esku artean gorde nahiaz aurkitu ginen..."

Aita Generala betiko soseguz ari da gertaera ikaragarri hura birgogoratzen.

Ez zen, hala ere, Japoniara etorriaz damutu; Xabierko Done Frantzisko misiolari nafarrak eraginda sentitu zuen konkretuki bokazioa hau baitzen. Han jarraitu zuen gero ere beste 20 urtea, 1965 arte.

Baina orain bonba jausi ondorenaz ari gara: nobiziagoan zeuden ikasle guztiak, izuaz kanpo, ongi zeudenez, igo ziren hurbil zegoen mendixka batera; ekialdeko lautada aldera begiratzera, eta minutu batzu lehenago hor zegoen hiri handiaren orde orube irrautsia besterik ez zen ageri, eta hauts-ke-lainoz estalia. Harantz abiatu ziren; bost orduko neke gorria izan zuten lurrari jota zegoen ke beltz eta suen artetik bidea egiten; Josulagunen egoitza bila lehenbizi. Aurkitu zituzten ondakinak eta bost josulagunak zaurituta, hilik ez hala ere; Arrupe sendagile zenez, egoitza zutik geratu zena hospital modura antolatzeke erabakia hartu zuen; ez zuen ia sendagirik aurkitu, baina ahalegindu ziren arrastaka hiritik kanpora ihesi zihoazenei laguntza ematen. Galdetzen zien zer-nola gertatu zen, eta denak erantzun bera ematen zuten: gorputzen zauririk ez, baina ordu-erdi barru larruan axaleko maskuilu txiki batzu irten ziren eta lau bat ordu gero hasi zitzaizkien erredurak nabarmenak ziren...

Hau da, lekukotasunerako, gizonak eta sendagileak esana.

Apaiz bezala: moral aldetik, noski, xuribiderik ez; arrazoin militarrez, berriz, "ez dut nik neuk horrelako gauza ikaragarria neurtzeko, ez ezaguerarik eta ez barrurik ere; desarmearen eske dabilzatenak badute hemen argudiorik..."

¹ *Hablando con los vascos*, Ed. Ariel, Espluges de Llobregat, (Barcelona), 1974.